## Kontaktu baliagarriak


**www.pecheapied-loisir.fr**

**www.facebook.com/PecheAPiedDeLoisir**

05 59 20 37 20 (CPIE) - 05 59 25 37 75 (IMA)

cpie.littoral.basque@hendaye.com

ima.aquitaine@orange.fr


CPIE LITTORAL BASQUE EUSKAL ITSASBAZTERRA

ima Institut des Milieux Aquatiques

RÉGION AQUITAINE

PYRENEES ATLANTIQUES LE DEPARTEMENT



**Euskal kostaldea,** itsaslabar eta itsasadarrez da osatua eta biodibertsitate azpimarragarria duen gune natural bat da. Eskaintzen dituen habitat natural aberats eta anitzak, hondartza eta arrezifeak barne, Natura 2000 sareko partaide bilakatzeko aukera eman diote. Ondare honen babestean parte hartu nahi baduzu, kontutan izan ezazu espazio honen sentsibilitatea.

NATURA 2000

## Seguritate aholku batzuk

**Atera aitzin, tresna zaitez, informa zaitez :**

- **Begira ezazu eguraldiaren berria ;** enbata edo ekaitz egunetan aholkatzen da ez ateratzea.
- **Galde ezazu itsasaldien ordutegia ;** ez baduzu eremua ezagutzen, itsasbehera orduan has zaitez ateratzen.
- **Zure tresneria eguraldi baldintzetara** egoki ezazu.
- **Ez zaitez leku ezezagun batera bakarrik abiatu,** emaiozu lagun bati zure etxeratzeko ordutegia.
- Har ezazu ordularia eta sakelako telefonoa. **Laguntza zenbakia 196 duzu.**

## Oinezko aisialdiko arrantza iraunkor baten aldeko egitasmo europarra

Life

**Oinezko aisialdiko arrantza Life egitasmoak, arrantzaleak itsas ingurunearen errespetasuna areagotzearen bidean laguntzen ditu, haien aktibitatea mantenduz.**



Pêcher intelligent, Pêcher durablement

**Helburuak :**

- **Itsasbazterraren biodibertsitatea babestearen aldeko** kudeaketa moduak ezartzea.
- Oinezko arrantzak itsasertzeko inguruneko fauna eta floran duen **eragina hobe ulertaraztea.**
- **Oinezko arrantzaleen eginmoldeak gararaztea.**
- **Itsas eremu babestuen kudeaketa plangintzetan** parte hartzea.

# Arrantza burutsua, arrantza iraunkorra

Pêche à pied DE LOISIR

AHOLKU PRATIKOAK

## Praktika egokiak



Arrantza praktika egokiak errespetatuz, baliabideak, itsas ingurunea eta gure segurtasuna babestuko ditugu.

- **Eska ezazue neurtzeko erregleta** CPIEn eta IMAn. Gutxieneko neurriak (neurri sareak) erreproduzitzeko aukera emanen diete espeziei.
- **Galde ezazue lokalki eta erregularki** izan daitezkeen osasun sailkapenak, debekatzeak, neurriak eta onartutako kopuruak.
- Harrapatutakoaren sailkapena, **arrantza egin bitartean egin ezazue** : arrautzak daramatzaten emeak eta gazteak aska itzazue.
- **Ez ezazu familiartean kontsumituko ez duzuna har.**
- **Tresna baimenduak erabili, suntsitzen ez dutenetakoak.**
- **Harriak zentzu egokian berriz pausatu.** Animaliak eta itsasbelarrak ez dira asaldatuak izanen.
- **Zure haurrekin itsas biodibertsitatea ezagutzeko** egiten baduzu arrantza, ez ezazu hartutakoa kubo batean utzi eguzkitan eta ez hondartzara edo etxera eraman. Animaliek ez dute bizirik iraungo.



**Itsas trikua**
*Paracentropus lividus*
(piquants exclus) : 4 cm



**Olagarroa** : 750 g
*Octopus vulgaris*



**Nekora** :
6,5 cm



**Izkira txikia** : 5 cm



**Izkira zuri** : 3 cm



**Txangurro** :
12 cm

Arautegia :
1998/03/30ko EKko Arautegia
Ministerioaren 2013/01/29ko agindua
2013/07/03ko prefekturaren agindua
2014/01/07ko prefekturaren agindua




(2016.eko uztailaren 3ko prefektura erabakia eta 1959.eko frantzia-espainiaren arteko hitzarmenean libreki egokitutako mapa)



Eskuagiri honetan diren informazioak orientabideak dira, ez dute arautegi ofiziala ordezkatzen.

Sorkuntza: Y. Souche / Itsas eremu babestuen agentzia, LIFE oinezko aisialdiko arrantza.
Mapa : Itsasbazterreko CPIE Littoral Basque, SHOM-Ifremer / OSM / Y. Souche
Argazkiak : A. Kok ; Y. Souche, P. Watremez / Itsas eremu babestuen agentzia ; M. Plensa / Itsasbazterreko CPIE Littoral Basque
Itzulpena : Itsasbazterreko CPIE Littoral Basque
**2015ko ekaina**